

# Zabalik, Interneten bidez Eusko Legebiltzarreko jardueretan parte hartzeko proiektua

(Zabalik, a project of participation through the Internet in the activities of the Basque Parliament)

Gómez Goikolea, Jon Gurutz

Eusko Legebiltzarra. Becerro de Bengoa, z/g. 01005 Vitoria/Gasteiz

BIBLID [1137-4462 (2005), 11; 271-279]

Jaso: 04.07.19

Onartu: 04.07.22

---

*Eusko Legebiltzarrak zerbitzu publiko bat jarri du martxan, doakoa, herritarrei Interneten bidez Legebiltzarreko jardueren berri izateko eta jarduera horietan parte hartzeko aukera ematen diena. Zabali zerbitzuak norberaren intereseko gaiak aukeratzeko, astero-astero gai horien tramitazioaren berri jasotzeko eta edozein momentutan tramitazio horretan parte hartzeko aukera ematen die bere erabiltzaileei. Sarbide zuzena da aukerakoa denontzat.*

*Giltza-Hitzak: Parte hartzea. Gardentasuna. Demokrazia elektronikoa. Eusko Legebiltzarra.*

*El Parlamento Vasco ha puesto en marcha un servicio público y gratuito que permite a los ciudadanos informarse y participar en sus actividades a través de Internet. Zabalik ofrece a sus usuarios la posibilidad de elegir los asuntos que les interesan, recibir información semanal sobre su tramitación y participar en cualquier momento en ella. Acceso directo y a la carta para todos.*

*Palabras Clave: Participación. Transparencia. Democracia electrónica. Parlamento Vasco.*

*Le Parlement Basque a mis en marche un service publique et gratuit qui permet aux citoyens de s'informer et de participer à leurs activités à travers Internet. Zabalik offre à ses usagers la possibilité de choisir les sujets qui les intéressent, de recevoir une information hebdomadaire sur ses démarches et d'y participer à tout moment. Accès direct et à la carte pour tous.*

*Mots Clés: Participation. Transparence. Démocratie électronique. Parlement Basque.*

“Iraultza digitala” deritzonak aldaketa handiak eragin dizkio gure bizimoduari. Informazioaren eta telekomunikazioen teknologia berriek duela hamar bat urte ezin pentsatzukoa zen egoerara eraman gaituzte: gaur guztiz posiblea da informazioa eta ezagutza merke eskuratzea eta elkarrekintzarako aukerak ere ugari zaizkigu. Bide berri hauek, beraz, ate joka ditugu, jarduera publiko zein pribatuko sektore askori deika. Merkataritza, ekonomia, hezkuntza, unibertsitatea bereziki, segurtasuna, osasuna eta beste hamaika arlo eta jarduerara buru-belarri sartu dira iraultza teknologikoak sortutako aukeretan eta desafiuetan.

Administrazio publikoan eta politikoan ere dei hori nabaritzen ari da. Eta instituzioek ere argi ikusi dute aukera berriok zabaltzen ari zaizkiela, herritarren eta instituzioen arteko harremana indartzeko bide berriak sortzen ari direla, herritarrek herri-arazoetan parte hartzeko bestelako bideak diseinatzeko erak. Arloari buruzko literatura teknikoak luze eta zabal jardun du gai honetaz, eta ugari dira Internetek erabiltzen duen kodea jarduera politikorako egokitu nahian programa, prozedura eta lanabesak ikertu, aztertu eta sortzen ari diren etxeak, fundazioak eta erakundeak.

Argi dago bide berriok aukera ezin hobeak eskaintzen dizkiotena aginte betearazleari eta, era berean, argi dago legebiltzarrek egundoko desafiari erantzun beharko diotena teknologia berrien trenean garaiz igo nahi badute.

Herriaren ordezkariak dira instituzioak, herri-borondatearen legezko ordezkariak; hortaz, gardentasunez jokatzeko dute oinarrizko betebeharrak. Internet aurreko aroan, Legebiltzarreko Administrazioak legebiltzarkideentzako zerbitzuak eta Jaurlaritzarekiko harremanak zaintzen zituen bereziki eta, gardentasuna bermatzeko, hedabideetako langileei ematen zien zerbitzu, hedabideen esku uzten baitzuen Legebiltzarren eta herritarren bitartekaritza informatiboa. Eskema horren arabera, zeharkako bezerotzat jotzen zen herritarra.

Haatik, teknologia berriek eskaintzen duten bidea ikusita, Administrazioa behartuta dago herritarra bestela hartzera. Hortaz, gaur egungo teknologiak Legebiltzarreko Administrazioarentzako eta legebiltzarkideentzako lanabes berriak diseinatzeko erabili beharko dira, bai eta lanabes horietako asko Jaurlaritzarekiko harremanetarako eta zuzeneko gardentasun hori lortzeko baliatu ere, horrela jokaturik lehen mailako *bezerotzat* hartuko da-eta herritarra.

## **EUSKO LEGEBILTZARRA INFORMAZIOAREN GIZARTERA EGOKITZEKO PLANA**

Premisa horiek aintzat hartuta, gogoeta estrategikoari ekin zion Eusko Legebiltzarrek; bere hogeigarren urtemugaren kariatara, 2000. urtean plazaratu zuen gogoeta horren emaitza: Eusko Legebiltzarra informazioaren gizartera egokitzeko jardueraren plana.

## **ESTRATEGIA**

**Kudeaketa integralaren printzipioa erabili behar da:** zerbitzu guztien eginkizuna da produktu digitalak mantentzea. Hortaz, sistema orokorraren garapen automatikoak edo azpiproduktuak izango dira, beti, produktu berriok.

**Lanabes digitalak diseinatu, sortu eta ezartzerakoan helburu hauek izan behar dira:**

- Bai legebiltzarkideen lana bai legebiltzarkideei zuzenean laguntzen dieten zerbitzuen lana erraztea (tramitatze digitala, erakundearen sarera urrutitik sartu ahal izatea, Intraneteko zerbitzuak indartzea).
- Legebiltzar-kudeaketako eta administrazio-kudeaketako zerbitzuen lana erraztea. Oinarrizko helburuak: tramitatze digitala, paperaren erabilera saihestea eta kudeaketako produktuak modernizatzea (kontrola, langileria, segurtasuna, etab).
- Legebiltzarreko jardueretan gardentasuna bultzatzea, bai Jaurilaritzari bai herritarrei dagokienez. Jaurilaritzarekin bi norabideetako komunikazioa erraztea eta herritarrek Legebiltzarraren lanetan zuzenean sartu ahal izatea. Herritarrei Legebiltzarreko jardueretan parte hartzen laguntzea. B2Bn erabiltzen diren kodeen arabeko irizpideak (proaktibitatea eta segmentazioa) baliatzea.

## **JARDUERAK:**

Plan estrategiko berria idaztea. Korporazioaren kultura berria diseinatzea. Ingurune berrian erakundeak eduki beharreko xedea eta ikuspegia zehaztea. Prozesuak eta zereginak aztertzea. Berrantolatzea. Prestakuntza-programak diseinatzea, eta abar. Azken fasean dago proiektuaren atal hau.

Lan hori garatu eta burutu bitartean, neurri hauek abiarazi dira, premiazkoak zirelakoan:

- Gehitu egin dira Informazio Sistemen Zuzendaritzako giza baliabideak eta aurrekontua.
- Modernizatu egin dira azpiegitura teknologikoak. Inbertsioak egin dira gure telekomunikazio-sistemen ahalmena areagotzeko. Inbertsio horien helburua gure produktuen sartu-irtenak erraztea da, hau da, gure produktueta sartzeko sistemak eta produktuok beste sare telematikoko batzuetara bideratzeko sistemak hobetzea. Sare telematikoko horiek aipatzean, sare espezifikoek (Eusko Jaurilaritza eta herri-administrazioak) eta sare publikoek (Internet) ari gara. Era berean, modernizatu egin da Legebiltzarraren sarearen euskarri materiala (terminalak eta zerbitzariak, eta gehitu eta modernizatu egin dira biltegi-ratzeko sistemak). Azkenik, beste zerbitzu batzuk ere modernizatu eta sartu dira Legebiltzarraren sarean (Intranet) eta web orrian.

## NEURRI HAUEI BURUZKO PROGRAMA BEREZI AIPAGARRIENAK.

### Bulego ibiltaria

Terminalak eta terminalen erabiltzaileak ezagutzeko eta egiaztatzeko sistema da. Eskuko ordenagailuetan ipini da. Sistema honen bidez, sinadura digitala erabiliz ekimenak urrutitik balio osoz tramitatu ahal izatea lortu da. Europako Erkidegoak arlo honetan emandako arauak betetzen ditu sistemak. Sistemari esker, erabiltzaileak, dauden tokian daudela, Legebiltzarren sareko zerbitzuetan (Intranet) sar daitezke, Legebiltzarrean bertan dagoen edozein erabiltzailek egiten duen baldintza berekin eta segurtasun berarekin sartu ere.

Legebiltzarkideek lanabes hauek erabil ditzaten bultzatzeko, prestakuntza-ikastaroez gain, beste zerbitzu bat abiatu dugu azken sei hilabeteotan, legebiltzarkideek sistema honetan sartzeko etxetik egiten dituzten loturak hobetze aldera. Horretarako, banda zabaleko instalazioa ere bultzatu dugu.

### Internet-Intranet zerbitzuak

Diseinu berria eman zaie zerbitzu horiei. Oraingoan, “xedeari” begira antolatu dira. Erakundearen kanpo-itxuraren arau berriak eta plan estrategikoan ezarritako balioak sartu dira. “Zerbitzu” kontzeptua nagusitzen da. Hori horrela, *agenda* da web orriaren ataria.

Zerbitzu berriak sartu dira eta lehengoak hobetu.

Birmoldatu egin dira argitaratutako *datu-baseen* interfazeak, bilaketa atsegina lortze aldera. Aldatu egin dira bilatze-laukiak eta sartzeko sistemak. Azpi-produktu automatikoak sartu dira, aplikazio berezietatik abiatuta. Produktu horien artean hauek azpimarratuko genituzke: *epeen egutegia*, *jardunaren estatistika-taulak*, *tramitatzen ari diren ekimenetako sarbidea* edo *legebiltzarkideen fitxak* automatikoki eguneratzeko programa. Azken programa honek, esaterako, legebiltzarkideek aurkeztutako ekimenak eta egindako hitzaldiak sartzan ditu sisteman.

Eztabaidak telebistaz zuzenean edo geroago ikusteko ematea. Osoko bilkurak eta batzordeen bilkurak zuzenean bidez ikusteko seinalea. *Geroago ikusteko bada*, *hizlarien arabera indexaturik eskaintzen da* seinalea eta ekimenaren espediente digitalean sartzan da, gainerako dokumentuak bezala.

*Zabalik: Eusko Legebiltzarreko jardunetan parte hartzeko zerbitzu proaktiboa.*

Legebiltzarren planteamendu hau laburbildu eta sinbolizatzen duen produktuak Zabalik du izena. Posta elektronikoak *banatzeko zerrenda* bat da, eta zerrenda horren bidez Legebiltzarrak bertako ekimen eta eztabaiden ganean bere datu-baseetan sartuta daukan dokumentazio guztia kontsulta dezakete, dohainik, herritarrek, elkarteek edo erakundeek, interesatzen zaizkien gaiak aukeratuta. Erabiltzaileak azken hamabost egunetan aurkeztutako ekimenak

konsultatu ditzake eta, ekimenez ekimen, gehien interesatzen zaizkionetan ize-na eman. Internetek eskaintzen dituen produktuen oinarritzko ezaugarriez gain, proaktibitatea eta segmentazioa ere gehitu zaizkio Legebiltzarraren produktu honi.

Zerbitzua erabili nahi bada, harpidetu egin behar da Eusko Legebiltzarraren web orria baliatuta. Horretarako, lehenengo, mezuak jasotzeko erabili nahi duen posta elektronikoa helbidea eman behar du harpidedunak. Eta bigarren, interesatzen zaizkion gaiak aukeratu behar ditu ehun gaiko zerrenda batetik; horrela, aukeratutako gaietako buruzko informazioa baino ez du jasoko harpidedunak.

Sistema honen diseinuari esker, erregistroan sartzen direnetik tramitazioa amaitu arte ezagutuko ditu hautatutako legebiltzar-ekimenak erabiltzaileak. Gainera, datu-basean sartu ahala eskuratu ahal izango ditu materialak eta, posta elektronikoa bidez, tramitazioaren une oro jarri ahal izango da legebiltzar-taldeekin harremanetan. Helburu horiek lortzeko, Zabalik programak mezu bana bidaliko die astero erabiltzaileei. Mezuak bi produktu izango ditu:

*HTML formatuko artxibo bat, informazio pertsonalizatua duena. Artxiboak esteka hauek izango ditu:*

- Lotura, batetik, amaitzearen astean (astelehenetik larunbatera) aurkeztu diren edo aldaketarik izan duten legebiltzar-ekimen guztien espediente digitalarekin, eta lotura, bestetik, hurrengo zazpi egunetan tramitatu diren ekimen guztiekin. Aukeratutako gaiekin zerikusia duten ekimenak baino ez ditu jasoko erabiltzaileak artxiboan.
- Estekak erabiltzaileen parte-hartzea eta elkarrekintza bultzatzeko zerbitzu desberdinekin, hala nola:
  - Esteka *legebiltzar-talde guztien posta elektronikoen* helbideekin.
  - Esteka Eusko Legebiltzarraren asteko ekitaldien zerrendarekin.
  - Esteka zuzeneko bideo-emanaldiez arduratzen den zerbitzuarekin, bai eta *protokolo-zerbitzuarekin* ere, tramitazioa zuzenean eginda Legebiltzarraren osoko bilkuretara gonbidatu gisa etorri ahal izateko.
  - Batzuetan, web orrian sartutako zerbitzu berrien informazioa emateko eta zerbitzu horiekiko estekak eskaintzeko ere erabiliko da.

Erabiltzaileak kontsulta dezakeen espediente digitalak datu hauek izango ditu:

- Tramitazioaren egoerari buruzko informazioa. Emandako informazioarekin, espedientea irekitzen denetik ixten den arte ekimenak duen bilakaera jakin daiteke, hau da, ekimena Legebiltzarrean bizirik dagoen bitarte guztian duen bilakaera. Egindako tramiteen berri emango zaio erabiltzaileari, baita tramiteen ondorioen berri ere. Fitxan, jatorrizko dokumentuekiko estekaz gain, ekimenari buruzko datu garrantzitsu guztiak ere agertuko dira: ekimen-mota, aurkezte eta argitaratze egunak, tramitazio-egoera, gaia

aztertu duten bilkuren bideo-aktak eta idatzizko aktak ikusteko estekak, eta ekimenaren gainean hartutako behin betiko erabakia.

- Erregistroan sartu diren jatorrizko dokumentuak eta ekimenaren tramitazioan gehitzen diren dokumentuak ikusteko aukera. Dokumentu horiek era honetakoak dira: zuzenketak, Jaurlaritzaren erantzunak eta tramitazioarekin zerikusia duten materialak, hala nola aldizkarietako argitalpena, bilkuren aktak eta eztabaidetan grabaturiko bideo-seinalea.

### Oinarri teknologikoa

Zabalik-en oinarri teknologikoa bi datu-base lotzen dituen aplikazioa da: aplikazio horren bidez legebiltzar-ekimenen datu-basea eta Zabalik zerbitzuaren erabiltzaileen datu-basea lotzen dira. Datu-base biek sarbide komunak dituzte (Eurovoc tesauroko termino komunak). Lehenengoak ekimenak sailkatzen ditu, gaien arabera. Bigarrenak erabiltzaileak sailkatzen ditu, hautatu dituzten gaien arabera.

Aplikazio horrek berez sortzen ditu posta elektronikoko mezuek. Horretarako, legebiltzar-ekimenen datu-basea eskaneatzen du, hamabost eguneko epearen barruan ekimenetan izan diren aldaketak aurkitzen eta espediente digitaletako estekak dituzten dokumentu pertsonalizatuak sortzen.

### Emaitzak

2002ko otsailean aurkeztu zitzaion Zabalik gizarteari, web orria aurkeztu zen egunean hain zuzen. Une honetan, 900 erabiltzaile ditu dagoeneko. Zerbitzuak bi ondorio izan ditu denbora laburrean: %600 igo da Eusko Legebiltzarraren web orria bisitatzen dutenen kopurua eta aldatu egin dira bisiten sakontasuna eta iraupena. Hilerio, gutxi gorabehera, 700.000 sarrera izaten dira, 25.000 erabiltzailek eginak.

Erabiltzaile-motari begiratzen badiogu, hau dugu gaur egungo banaketa, erabiltzaile-kopurua astez aste handitzen ari dela ahaztu gabe.

ERABILTZAILEREN MOTA	ERABILTZAILEREN %
Mota guztietako elkarteak	21%
Korporazio zibilak (ugazaben elkarteak, sindikatuak, merkataritza ganbarak, etab.)	20%
Hedabideak	20%
Jaurlaritzako goi-karguak	8%
Estatuko eta Europako beste erakunde publiko batzuk	15%
Norbanakoak	13%
GUZTIRA	100%

Zabalik, gainera, datuak elkarri helarazteko erabiltzen dute Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak. Zabalik-en erabiltzaileetatik 114 Eusko Jaurlari-

tzako goi-karguak dira. Zerbitzu honi esker, goi-kargu horiek badute eurekin zeri-kusia duten ekimenen berri eguneratua. Egun, esaterako, abian daude aurrekontuei buruzko informazio digitala elkarri igortzeko aplikazio komunak. Era berean, osoko bilkuretan eta batzordeetan sortzen dugun bideo-seinalea aldi berean bidaltzen da Jaurlaritzaren zerbitzarira, zuntz optikoaren bidez. Jaurlaritzako informatika-arduradunek egiten dute barruko banaketa. Legebiltzarrak, baliabide berak erabiliz, Jaurlaritzak ematen dituen prentsaurrekoen seinale instituzionala hartzen du, eta Intraneteko erabiltzaileei eskaintzen.

Hurrengo erronka zera da, Jaurlaritzak Legebiltzarrera igortzen duen dokumentazioa Legebiltzarreko erregistrora, enkriptaturik eta sinadura digitalarekin, bide elektronikoz heltzeko behar diren lanak burutzea. Nolanahi ere, arestian aipatu denez, horretarako badugu jada bulego ibiltari zerbitzua eskaintzeko behar den teknologia. Aste honetan egiten ari dira trukaketa enkriptatu hori abian ipintzeko frogak.

### **Beste apustu batzuk**

Eusko Legebiltzarreko beste arlo batzuetan ere erabili ditugu baliabide digital hauek, argitalpen-unitatean, azterlan-zuzendaritzan edo protokolo-atalean, adibidez. Une honetan papera eta baliabide digitalak erabiltzen ditugu gure argitalpenetan.

Azterlanen zuzendaritzak gure Intranetean ipini egiten ditu Eusko Legebiltzarreko legegintza-lanen gainean egiten dituen dosierak. Txosten hauetan makina bat esteka agertzen dira. Esteka horien bidez, informazio ugari eskura dezakete legebiltzarkideek eta, horrela, euren lana erraztu.

Era berean, elkarlanean ari gara Hezkuntza Sailarekin, ikastetxeetan erabili diren euskarri digitaleko langaiak argitaratzeko. Balioen heziketan sakondu nahi dugu langai horien bidez. Izaera orokorreko langai bat argitaratu dugu, Izar 01 deritzona, bai eta pluraltasuna aldarrikatzen duten beste langai espezifiko batzuk ere: xenofobia aurre hartzekoa, sexuen arteko berdintasuna bultzatzekoa eta genero-indarkeriaren aurkakoa Euskal ikastetxeetan erabiltzen dira baliabide hauek guztiak. Une honetan, lanean ari gara Izar 01 aztertu eta hobetzeko.

### **TEKNOLOGIA**

Eusko Legebiltzarraren eta honen zuzendaritzen zerbitzarietan oinarritzen da gure informazio-sistemen egitura. Legebiltzarreko langileak, baimena edukiz gero, euren mahaiko ordenagailuetatik sar daitezke zerbitzari hauetan, eta berdin legebiltzarkideak euren eskuko ordenagailuetatik. Eskema osatzeko, Internetarako eta web-zerbitzuak eskaintzeko sarbide bat jarri da, eremu babestua eta DMZ bat dituen. Ethernet 100/1000 sare batekin lotzen dira ordenagailu guztiak. VPN batzuetan banatu dira ordenagailuak, langile-talde desberdinek behar dituzten zerbitzuen arabera.

Legebiltzarraren sistemak SUN makinetan kokatu dira, Solaris sistema eragi-learekin; zuzendaritzen sistemak HP Proliant zerbitzariak dira (hasieran, Windows 2003 Server- ez zeuden hornituta, baina progresiboki Linux RedHatera aldatzen ari dira). Ordenagailu pertsonalek Windows 2000ekin lan egiten dute eta Office 2000z hornitu dira; egun, Linux eremura ekartzea edo ez aztertzen ari da.

Web zerbitzuen bidez eskaintzen dira zuzendaritzen aplikazio gehienak, eta denak kokatu dira Legebiltzarraren atarian. Atariko web-orrien %10k informazio estatikoa eskaintzen du. Orrien %40 estatikoak dira itxuraz baina eduki aldakorra daukate; izan ere, orri horiek egunero berritzen dira, automatikoki (baita on-line sistemaz ere), eurekin lotuta dauden datu-baseetan egindako aldaketak detektatzen dituzten programen bidez: Legebiltzarraren jarduna, ekimenen historikoa, egintza desberdinak, argitalpenak, bilkurak, prentsa-oharrak eta abar. Estekaz beterik daude orri hauek, datu-baseetan dagoen jatorrizko informazio osora heltzeko.

Orrien beste %50 zuzen sartzen dira, eskabide-orrien bidez, elkarren artean lotuta dauden multimedia datu-baseetan (datuak, ascii testuak, PDF, eztabaiden irudiak, entzutekoak eta bideoak). Eusko Legebiltzarrean sortzen den informazio guztia erakusten dute datu-base hauek, jatorrizko formatuan erakutsi ere. Datu-base hauen artean nabiga daiteke, batetik bestera, eta egunero sortzen den informazioaz elikatzeaz gain, Eusko Legebiltzarraren historiaren 24 urteetan jazotako guztia ere batzen dute. Informazioa sartzeko prozesuen diseinuari esker, Eusko Legebiltzarrean tramitatzen hasten diren unean bertan kargatzen dira ekimenak datu-baseetan. Kargatze hori behin bakarrik egiten da sistema osoan, ekimen hori gestionatu behar duen pertsonak eginga. BasisPlus softwaren batean oinarritzen da sistema hori (harreman, agiri eta multimedia kudeaketa egin dezake); Azertia enpresaren laguntzarekin garatu dira aplikazio hauek, eta BasisPlus, Visual Basic, Java eta XML lengoiaekin egin.

Bezero-zerbitzari ereduaren arabera antolatu dira zuzendaritzen aplikazio gehienak, nahiz eta berritu ahala web-aplikazio bihurtzen ari garen.

Legebiltzarrean egiten diren eztabaida guztiak, osoko bilkurak zein batzordeak, Interneten bidez ematen dira zuzenean, eta informazio-sistemetan biltegitratzen dira, gerora kontsultatu ahal izateko. Kontsulta historiko horiek egiteko, irizpide desberdinen arabera antolatu dira datu-baseak, gaika bilatu ahal izateko.

EMC etxearen biltegitratze masiboko sare batean dago Legebiltzarraren eta zuzendaritzen informazioa, kopia erredundanteen kabinak eta guzti.

LEGATO sistemaren bidez kudeatzen dira eguneroko backup eta informazioa berreskuratzeko sistema. LEGATOk zinta-erroboteko bi unitate erabiltzen ditu, eta horren bidez hilabete bateko zikloa jaso daiteke.

Autoritatearen ziurtagiri-emailea da Legebiltzarra, eta Entrust teknologiako PKI bat ezarrita dauka horretarako. Teknologia hori instalatzeko eta garatzeko, IECISA eta SIA enpresek hartu dute parte. Sinadura elektronikoaren bidez tramitatzen da barruko informazioaren zati garrantzitsu bat. Laster hitzarmen bat sinatuko da Eus-



ko Jaurilaritzarekin, batak bestearen sinadura elektronikoak ezagutzeko, erakunde bien arteko agirien joan-etorria euskarri digitalaren bidez egin dadin.

Ziurtagiri digital berberekin lan egiten du legebiltzarkideentzat prestatu den bulego ibiltariaren sistemak. Legebiltzarkideek txartel inteligente pertsonala (Active Card) eduki behar dute euren eskuko ordenagailua abian jartzeko, sistemaren aurrean euren burua egiaztatzeko eta harekin lan egiteko. Ziurtagiri bera erabiltzen da legebiltzarkideek Legebiltzarraren Extranet-en egiten duten sarrera kontrolatzeko, baita postako, agendako eta abarreko sarrera kontrolatzeko ere. Segurtasunezko lotura enkriptatu baten bidez egiten da beti sarrera hori. Sinadura elektronikoa erabiliz, dokumentazio balioduna aurkez dezakete legebiltzarkideek Legebiltzarreko Erregistroan, noiznahitik eta noiznahi.

Hiru milioi eta erdi euro inbertitu ditugu azken urteotan gure egitura sendotzen eta hobetzen, zerbitzu berriak eskaintzen, azpiegitura teknologikoak modernizatzen, zerbitzariak aldatzen, biltegiatze masiboko tresneria aldatzen eta zabaltzen, makina-parkea berritzen, bulego ibiltariko eskuko ordenagailuak erosten eta bulego ibiltariaren gestio-sisteman, osoko bilkuren eta batzordeen bilkuren seinale instituzionala gestionatzeko eta digitalizatzeko tresneria erosten eta gure telekomunikazio-azpiegiturak hobetzen. Gainera, egun zortzi langile ari dira Informazio Sistemen Zuzendaritzan (lehen hiru baino ez ziren).

Egun, Eusko Legebiltzarra da Zabalik-en bidez abian jarri dugun herritarrentzako zerbitzua bezalakorik eskaintzen duen Estatuko legebiltzar bakarra. Badaude harpidetzeko beste sistema batzuk, baina Zabalik desberdina da; gure sistemaren erabiltzaileek eurek aukeratutako informazioa jasotzen dute, harpidetza egitean aukeratutako gaien eta ekimenen arabera informazioa, eta aukera hori edonoz alda dezakete. Astero, mezu bat bidaltzen zaie erabiltzaileei, espedienteak aldi jakin batean izan duen tramitazioaren eta garapenaren berri emateko; mezu horretan ondorengo egunetan egin behar diren eta harpidedunari interesatu ahal zaizkion eztabaiden berri ere ematen zaie. Gainera, ematen zaizkion esteken bidez, interesatzen zaion ekimenaren espediente digital osoan sar daiteke harpideduna, eta eskura ditu ekimen horren gaineko jatorrizko agiri guztiak, agiriak biltegiatzeko erabili den euskarrian (papera, agiri elektronikoa, bideoa). Espediente digitala hartu eta begiratu arin batekin, ekimenaren tramitazio osoa azter daiteke, ekimenak izandako garapen osoa pausoz pauso ikusi, Eusko Legebiltzarrean erregistratzen denetik tramitatzen amaitu arte. Horrezaz gain, herritarrak, nahi duenean, harremanetan jar daitezke tramitatzeko horretan ari diren legebiltzarkideekin, posta elektronikoa erabiliz.

Filosofia horrekin ari gara lanean zerbitzu berriak sortzean; gainera, zerbitzuok hobetzeko, bezeroen iritzia ere kontuan hartu nahi dugu. Zabalik zerbitzuaren hasierako bertsioaren garapena da egun erabiltzen duguna. Zerbitzua abiatu eta sei hilabete geroago inkesta bat egin genuen erabiltzaileen artean, eta iradoki zizkiguten hobekuntzak sartuz joan gara. Eta berdin jokatzeko orriaren diseinuaren aurkezpena lantzean edo nabigatzeko menuen izendegia presatzean, merkatua eta baliabide berriak kontuan hartuz, baliagarriak iruditzen zaizkigunak gure katalogo teknologikoan sartzeko.